AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HERRIZAINGO SAILA

5641

EBAZPENA, 2011ko azaroaren 4koa, Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearena, zenbait lagun Ertzaintzako egiterapen eskalako komisario kategoriarekin karrerako funtzionario izendatzen dituen 2011ko urriaren 31ko Ebazpena, Euskal Herriko Polizia Ikastegiko iragarki-oholean argitaratu den data jakinarazteko dena.

Ertzaintzaren egiterapen eskalako komisario kategorian sartzeko hautaketa prozedurarako dei egin zuen Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2010eko uztailaren 29ko Ebazpenaren hamabosgarren oinarriarekin bat etorriz (irailaren 3ko EHAA, 170. zk.), eta abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuaren 12. artikuluak ematen dizkidan eskumenak direla bide, 303/2010 Dekretuak aldatuta, ondoko hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Zenbait lagun Ertzaintzako egiterapen eskalako komisario kategoriarekin karrerako funtzionario izendatzen dituen Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearen 2011ko urriaren 31ko ebazpena Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko iragarki-oholean 2011ko azaroaren 4an argitaratu dela jakinaraztea.

Bigarrena.– Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio-bidea, eta interesatuek haren kontra gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Herrizaingoko sailburuari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera zenbatu beharreko hilabeteko epearen barruan, hala ezarririk baitago Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio-Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. eta 114. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 4a.

Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordea,
NÉLIDA SANTOS DÍAZ.